



EUSKAL HERRIKO XIII. EKONOMIAKO OLINPIADA

2022ko MARTXOAREN 25a

AZTERKETARI BURUZKO INFORMAZIOA

- Azterketak 3 zati ditu: lehenik, 15 galderako test bat; bigarrenik, bi ariketa praktiko, bata batxilergoko bigarren mailako “Ekonomia eta Enpresen Antolaketa” atalekoa eta, bestea, batxilergoko lehen mailako “Ekonomia” atalekoa, eta, azkenik, testu bat iruzkinak egiteko.
- Lehen zatia **baztertzaileria** da eta 4 puntuko balioa du. **Erantzun okerrak ez dira zigortzen, eta gutxienez 8 erantzun zuzen izan behar dira.**
- Ariketak praktikoek eta iruzkinak egiteko testuak, bakoitzak 2 puntuko balioa du. Berezi baloratuko dira gaia ulertzeko gaitasuna eta erantzunen arrazoinamendua.
- Azterketaren iraupena 2 ordukoa izango da.

Lehenengo atala: TEST GALDERAK

1. Enpresa baten produktibitatea % 20koa bada, honako hau baieztatu daiteke:
 - a) Enpresaren produktibitatea bere sektoreko batez bestekoaren gainetik dago.
 - b) Produkzio bolumena, erabilitako faktoreen kopurua baino txikiagoa da.
 - c) Produkzio bolumena, erabilitako faktoreen kopurua baino handiagoa da.
 - d) Produkzio bolumena, erabilitako faktoreen kopuruaren berdina da.

2. Leasinga honela definitzen da:
 - a) Merkataritza zor bat lagatzea edo transferitzea.
 - b) Ondare elementuen errentamendu kontratua, erosteko aukerarekin.
 - c) Ondasun bat erosteko dirua jartzea, interesekin itzultzeko promesarekin.
 - d) Banku batek bezero bati kanbio-letra baten kopurua aurreratzea.

3. Enpresa batek makina berri bat erostea erabakitzen du bere produktuak ekoizten jarraitzeko. Makinak 400 € balio ditu eta finantzaketa behar da. Esan egoera hauetatik zein den egiazkoa:
 - a) Enpresaren finantzaketa iturriak aztertu behar dira. Honako hauek lirateke: zorpetzea epe laburrera eta zorpetzea epe luzera.
 - b) Enpresaren finantzaketa iturriak aztertu behar dira. Honako hauek lirateke: finantzaketa epe laburrera eta finantzaketa epe luzera. Enpresak aukeratuko luke makina finantzatzea epe laburrerako finantzaketarekin, makinak sortutako produktuak hilabetea baino epe gutxiagoan salduko liratekeelako.
 - c) Enpresaren finantzaketa iturriak aztertu behar dira. Honako hauek lirateke: enpresaren baliabide propioak eta kanpo-baliabideak. Enpresak aukeratuko luke makina finantzatzea bere baliabideekin, baldin eta apalankamendu finantzarioak hala gomendatuko balu.
 - d) Enpresaren finantzaketa iturriak aztertu behar dira. Honako hauek lirateke: enpresaren baliabide propioak eta kanpo-baliabideak. Enpresak aukeratuko luke makina finantzatzea kanpo-baliabideekin, merkeagoa delako eta ez dagoelako interesik.

4. Enpresa baten finantza egoerei dagokienez, esan zein den egiazkoa:
 - a) Enpresaren ondareari buruzko informazioa ematen dute, zeina sarreraren eta gastuen arteko aldea den.
 - b) Enpresaren ondasunei, eskubideei eta betebeharrei buruzko informazioa ematen dute, eurotan baloratuta, eta Galdu-Irabazien kontuan behar bezala adierazita egon behar dutenak.
 - c) Aktiboak enpresaren egitura ekonomikoa adierazten du; hau da, finantzaketarekin egin diren inbertsio guztiak.
 - d) Partida hauek (besteak beste) enpresa baten Balantze Egoeraren osagaiak dira: Lursailak, Banku Maileguak, Makineria, Bezeroak, Lehengaiak, Diruzaintza, Soldatak, Instalazio Teknikoak eta Hornitzaileak.

5. Material kirurgikoa egiten duen enpresa baten kostu finkoak 200.000 €-koak dira eta unitate bakoitzaren kostu aldakorra, 75 €-koa. Aurten 1.000 unitate fabrikatu ditu; errentagarritasun atalasea dena. Zein izan da salmenta prezioa?
- a) 100 €
 - b) 150 €
 - c) 50 €
 - d) 275 €
6. Pertsona batek 2.000 € kontu korrontean sartzea erabakitzen badu eta ez %4ko urteko interesa daukan aurrezki kontu batean (% 4koa), aukera kostua izango da:
- a) 2.080 €
 - b) 80 €
 - c) 2.000 €
 - d) 40 €

7. Sagar kilo baten prezioak bilakaera hau izan du urtebetean:

Data	Sagar kilo baten prezioa
2021/12/31	2 €/kilo
2022/12/31	2,12 €/kilo

Kalkulatu bi daten arteko inflazio tasa:

- a) % 5
 - b) % 6
 - c) % 7
 - d) % 8
8. Produkzioarentzat negatiboa den kanpo-eragin baten ondorioz, ondorengo zein egoera ematen da:
- a) Ondasuna ekoizteko kostu soziala eta kostu pribatua berdinak dira.
 - b) Ondasuna ekoizteko kostu soziala kostu pribatua baino txikiagoa da.
 - c) Ondasunaren kopuru sozialki optimoa, merkaturatutako kopurua baino txikiagoa da.
 - d) Ondasunaren kopuru sozialki optimoa, merkaturatutako kopurua baino handiagoa da.
9. Ondoko zein baieztapen lotuko zenuke oligopolio egoera batekin?
- a) Saltzaile (eskaintzaile) asko daudenean eta erosleen (eskatzaile) kopurua txikia denean sortzen da.
 - b) Saltzaile (eskaintzaile) asko daudenean eta erosleen (eskatzaile) kopurua handia denean sortzen da.
 - c) Saltzaile (eskaintzaile) gutxi daudenean eta erosleen (eskatzaile) kopurua txikia denean sortzen da.
 - d) Saltzaile (eskaintzaile) gutxi daudenean eta erosleen (eskatzaile) kopurua handia denean sortzen da.

10. Ondoko zein baieztapen lotuko zenuke Heltze Aro Finantzarioaren (HAF) kalkularekin?
- HAF = batez besteko hornikuntza aldia + batez besteko fabrikazio aldia + batez besteko salmenta aldia + batez besteko kobrantza aldia.
 - HAF = batez besteko hornikuntza aldia + batez besteko fabrikazio aldia + batez besteko salmenta aldia + batez besteko kobrantza aldia + batez besteko ordainketa aldia.
 - HAF = batez besteko hornikuntza aldia + batez besteko fabrikazio aldia + batez besteko salmenta aldia + batez besteko kobrantza aldia - batez besteko ordainketa aldia.
 - HAF = batez besteko hornikuntza aldia + batez besteko fabrikazio aldia + batez besteko salmenta aldia - batez besteko ordainketa aldia.
11. Inbertitzaile bat inbertsio proiektu bat baloratzen ari da Egungo Balio Garbiaren irizpidearen bidez. Nola kalkulatu behar du i urteko kutxako fluxua (F_i)?
- $F_i = \text{Sarrerak}_i - \text{Ordainketak}_i$
 - $F_i = \text{Kobrantzak}_i - \text{Gastuak}_i$
 - $F_i = \text{Kobrantzak}_i - \text{Gastuak}_i$
 - $F_i = \text{Kobrantzak}_i - \text{Ordainketak}_i$
12. Ondoko zein galdera ez dagokio gai makroekonomiko bati?
- Zergatik herrialde batzuk hazten dira beste batzuk baino bizkorrago?
 - Zergatik erabakitzen du pertsona batek lan ez egitea?
 - Zergatik aldatzen da inflazio tasa herrialde batetik bestera?
 - Zergatik da horren handia langabezia tasa Espainiako estatuan, baita hazkunde ekonomiko garaian ere?
13. Gobernuak 37.000 milioi euroren balioa zuten ondasunak eta zerbitzuak erosi zituen joan den ekitaldian. Ogasunaren arabera, 42.000 milioi euro bildu dira. Gainera, Gizarte Segurantzak 9.000 milioi euro ordaindu ditu erretiro pentsioetan. Datu horien arabera, estatuaren aurrekontuak...:
- 5.000 milioiko defizita du.
 - 5.000 milioiko superabita du.
 - 4.000 milioiko defizita du.
 - 4.000 milioiko superabita du.
14. Enpresa baten Giza Baliabideen Arloari buruz ondoko zein baieztapen da egiazkoa?
- Enpresa guztiek dute Giza Baliabideen Saila.
 - Giza Baliabideen Arloa soil-soilik arduratzen da enpresako langileak hautatzeaz eta kontratatzeaz.
 - Giza Baliabideen Arloak hainbat atal izan ditzake, eta horietako bakoitzak bere zereginak ditu.
 - Aurreko bat bera ere ez.

15. Enpresa baten hornikuntza funtzioari buruz ondoko zein baieztapen da egiazkoa?
- a) Hornikuntza funtzioak hiru funtsezko atal ditu: erosketak, produkzioa eta biltegiatzea.
 - b) Hornikuntza zikloa hasten da erosketa egiten denean eta amaitzen da saldutako produktua bezeroei ematen zaienean.
 - c) Hornikuntza zikloa ez da aldatzen enpresa motaren arabera (produktorea edo komertziala).
 - d) Enpresa batek stocka edo izakinak edukitzeko arrazoi bakarra da produkturik gabe ez gelditzea eskaera ezustean handitzen denean.

Bigarren atala: EKONOMIAKO ETA ENPRESEN ANTOLAKETAKO ARIKETA PRAKTIKOAK

1 ARIKETA

1. Honako hauek dira eskaerak eta eskaintzak Relax Besaulkien merkatuan:

$$Q^{\text{eskaria}} = 1.200.000 - 12.000P$$

$$Q^{\text{eskaintza}} = 36.000P - 240.000$$

Q = besaulki unitateak; P = besaulki bakoitzaren prezioa.

- a. Kalkulatu oreka prezioa eta kopurua.
- b. Irudikatu grafikoki eskaera eta eskaintza kurbak eta seinalatu oreka puntua.
- c. Besaulkien gutxieneko prezioa 48€ bada (ozta-ozta kostuak estaltzeko balio duena), gehiegizko eskaera ala eskaintza egongo litzateke? Adierazi grafikoan egoera hori.
- d. Gobernuak gasolinaren eta gasolioaren zergak igoko ditu, klima aldaketaren aurkako borrokan laguntzeko. Eragina izango du horrek Relax Besaulkien eskaera edo eskaintza kurbetan?
- e. Beste herrialde batetik antzeko besaulkiak prezio erdian iristen badira, eragina izango du Relax Besaulkien eskaera edo eskaintza kurbetan?

EUSKAL HERRIKO XIII EKONOMIAKO OLINPIADA

2 ARIKETA

Bizkaiko herri txiki bateko okindegiak errezeta tradizionalak eta artisau metodoak erabiliz egiten du ogia. 2021ean, datu hauek izan ditu:

- 400.000 ogi saldu ditu. Batez beste, ogi bakoitzak gari ekologikoz eginiko 500 gramo irin erabili ditu.
- 2021ean, irinaren prezioa 3 €/kilo-koa izan da.
- Irin eskaera bat egitearen kostua 500 €-koa da (administrazioa, garraioa eta deskarga).
- Biltegitratze kostuei dagokienez (biltegia alokatzea, stocka kontrolatzea eta produktuan izan daitezkeen galerak), urteko mantentze kostua 2 €-koa da biltegian gordetako irin kilo bakoitzeko.
- Okindegiak urtean 300 egunez lan egiten du.

ESKATZEN DENA:

- a) Kalkulatu irin eskaeraren bolumen optimoa.
- b) Enpresak 1.000 kilo irineko segurtasun stocka badu eta hornitzaileak 3 egun behar baditu eskaerari erantzuteko, kalkulatu eskaera puntua.
- c) Kalkulatu okindegiak urtean egingo dituen eskaeren kopurua eta bi eskaeren arteko denbora.
- d) Enpresak 1.000 kilo irineko segurtasun stocka badu, kalkulatu batez besteko stocka eta gehieneko eta gutxieneko stock mailak 2021ean.
- e) Kalkulatu okindegiaren inbentarioen kudeaketaren 2021eko kostua guztira.
- f) Kostuetan aurrezteko, biltegiaren arduradunak erabaki zuen 8 eskaera egitea 2021ean. Egiazta ezazu aurrezteko espero zen dirua egiazki aurreztu den, eta arrazoitu erabakia egokia izan den.

EUSKAL HERRIKO XIII EKONOMIAKO OLINPIADA

Hirugarren atala: TESTU BAT IRUZKINAK EGITEKO

EL PAÍSeko ALBISTEA, 2022-02-03 (Sinadura: Lluís Pellicer)

EBZk bere kezka adierazi du prezioen gorakadagatik eta ez du baztertzen interes tasak igotzea 2022an. Lagardek adierazi du kezka “ahobatekoa” dela inflazioagatik, baina agindu du ez dutela arinegi jokatu pizgarriak kentzeko orduan

Dagoeneko ez dago trantsizio bilerarik Frankfurt. Europako Banku Zentralak (EBZ) hartzen duen erabaki bakoitza, ezer ez egiteko erabakia barne, lupaz aztertzen dute merkatuek. Inflazioak -90eko hamarkadatik handiena- jarraitzen du Christine Lagarde buru duen erakundeari presio ezin handiagoa eragiten, ekonomia hoztu dezan. Merkatuek dagoeneko iragarri dituzte bi interes tasa igoera urte honetarako, inbertsiogileek berriro ere eskatu dute bonu alemaniarrengatik errentagarritasun bat, eta bankuek aurreikusitako gogortu egingo direla kreditu baldintzak. EBZ eusten ari zaio merkatuekin duen lehiari eta jarraitzen du pizgarriak pixkanaka kentzearen aldeko apustua egiten. Dena dela, bidea lautzen hasi da, badaezpada, moneta politika gogortu behar baldin badu inflazioagatik, eta ez du baztertzen interes tasak igotzea 2022an. “Egoera egiazki aldatu egin da”, adierazi du Lagardek gobernu kontseiluaren bileraren ondoren.

Gutxitan agertzen da EBZko presidentea kazetarien aurrean gobernu kontseilu baten ondoren argudio, mantra edo hitz gako bat prest eduki gabe. Ostegunean “datuak” izan zituen hizpide. Eta mahai gainean daudenek oreka desberdin bat adierazten dute EBZren kezkei dagokienez: ekonomiak gero eta hobeto eusten die kutsatze oldeei, eta espero da aurten hazkundea bizkortzea; aldiz, inflazioak ez du alde egiten, bere horretan jarraitzen du, halako moldez, non kezka “ahobatekoa” den kontseiluko kideen artean. “Inflazioa asko handitu da azken hilabeteetan eta horixe egin du berriro ere urtarrilean modu harrigarri samar batean” adierazi du EBZko presidentek.

Prezioen gorakada %5ekoa izan da abenduan eurogunean, eta % 5,1ekoa, urtarrilean, ekonomisten aurreikuspenak gaindituta. Hori dela-eta, Lagardek honako hau adierazi du bai belatzak bai usoak gogobete nahi dituen hizkuntza bat erabilita: “Prest gaude gure tresna guztiak doitzeko, dagokionaren arabera, inflazioa %2ko helburuan egonkortu dadin epe erdira”. [...]

Merkatuek berehala interpretatu dute Lagardek amore eman eta ateak ireki dizkiola interes tasen igoerari, inbertsiogileek abenduan kokatu duten igoera. Euroak balioa handiagotu du dolarraren aurrean, zorraren errendimendua areagotu egin da eta bankaren akzioak igo egin dira tasa negatiboen aroaren amaiera begiztatzean. Dena dela, berriro ere, Lagarde saiatu da bi aldeen artean igeri egiten: alde batetik, Ipar herrialdeak, inflazioa txikitzeko moneta politika gogortzea eskatzen ari direnak; bestetik, Hegoaldekoak, pizgarriak pixkanaka kentzea eskatzen ari direnak, haien zorra ez zigortzeko. Lagardek agindu du, zeinahi ere den prozesua, “graduala” izango dela eta “urratsez urrats” egingo dela. Argi eta garbi esateko: pizgarrien programen amaiera planteatu beharko da tasak igotzeaz hitz egin aurretik.

Oraingoz, hartu diren erabakiak abenduan hartutakoen berdin-berdinak dira. Ezer berririk ez: interes tasek % 0an jarraitzen dute eta gordailutzeko erraztasun tasa, -% 50ean. EBZ murriztuz joan da pandemiari lotutako zor programaren erosketen erritmoa (PEPP, ingelesezko akronimoaz), eta espero du martxoan amaitzea programa hori. Hortik aurrera, erakundea betiko programara itzuliko da (APP, ingelesez) eta munizio gehiago jarriko du: 40.000 milioi bigarren hiruhilekoan, 30.000 milioi hirugarrenean eta 20.000 milioi laugarrenean.

Irakurri albistea eta erantzun galderei:

- a) Zeinek osatzen dute Europako Banku Zentralen Sistema (EBZS)?
- b) Zer eginkizun ditu EBZSk eta zer rol betetzen du Europako Banku Zentralak (EBZ)?
- c) Zein da EBZSren helburu nagusi eta funtsezkoa eta zer tresna ditu EBZk helburu hori betetzeko? Eztabaidatu zergatik uste duzun eutsi diela EBZk abenduan hartutako erabakiei.

EUSKAL HERRIKO XIII EKONOMIAKO OLINPIADA